**Esp. kodea:** 2013RBAR0015
**Titularra:** OGASUN BATZORDEA
**Gaia:** 2013 urteko dirulaguntza deialdia
**Hasiera data:** 2013/05/02

## 4.5 DROGA-MENDEKOTASUNEN ETA BESTE MENDEKOTASUN PSIKOLOGIKOEN TRATAMENDURAKO DIRULAGUNTZA EKONOMIKOAK ERREGULATZEN DUTEN ARAU ESPEZIFIKOAK

### 1. Arrazoia

Hamarkada bat baino gehiago da Arrasateko Udalak tratamendurako dirulaguntzen araudia arautu zuenetik. Urte horietan, drogen mendekotasunen inguruan hainbat aldaketa esanguratsu gertatu dira gizartean, eta horrek behartzen gaitu araudi hau aztertu eta egokitzera.

Alde batetik, tratamendurako zentroei dagokiena dago, nahiz eta neurri batean, tratamendurako eskaintza gerturatu den bailarako buru osasuneko zentroko eskaintzaren bidez, tratamendu batzuek Arrasatetik urrun egoten jarraitzen dute, eta horrek erakusten digu neurri hau mantentzeko beharra.

Bestalde, tratamendurako zentroak haien tratamendu eskaintza profil eta egoera berrietara egokitu behar izan duten moduan, udal Gizarte Zerbitzuetan ere egungo egoerara egokitzeko premia ikusi dugu. Zentzu horretan, kontuan hartu beharko dira eskola porrota, delituzko ekintzak, portaera arazotsuak eta abar eragin ditzaketen mendekotasun-jokabide goiztiar edo arazotsuak egiten dituzten eta tratamendua behar duten nerabeak. Eta bestalde, sustantziekiko mendekotasunez gain beste mendekotasun psikologikoak ere kontuan hartzea beharrezko ikusten da: ludopatiak, teknologia berriekiko mendekotasunak, etab.

### 2. Xedea

## 4.5 BASES ESPECÍFICAS QUE REGULAN LAS AYUDAS ECONÓMICAS PARA TRATAMIENTO DE DROGODEPENDENCIAS Y OTRAS ADICCIONES PSICOLÓGICAS

### 1. Motivo

Hace más de una década que el Ayuntamiento de Arrasate regulo las ayudas a tratamiento de drogodependencias. Durante estos años, ha habido en la sociedad cambios significativos respecto a distintos aspectos relacionados con las drogodependencias, lo que nos obliga a revisar y actualizar dicha normativa.

Por un lado está lo referente a los centros de tratamiento, que aún habiéndose acercado en parte, a través de la oferta que se incluye hoy en día en el centro de salud mental de la zona, algunos tratamientos siguen quedando alejados respecto de Arrasate, lo que determina la necesidad de seguir manteniendo esta medida.

Por otro lado, así como los centros de tratamiento se han visto obligados a adaptar su oferta de tratamiento a los nuevos perfiles y situaciones, desde los Servicios Sociales municipales se percibe la necesidad de adecuar el propio servicio a la situación actual. Esto supone, por un lado, tener en cuenta la población adolescente que necesita tratamiento por comportamientos dependientes precoces o usos problemáticos de sustancias, que inciden o pueden incidir sobre el fracaso escolar, conductas delictivas, trastornos de comportamiento, etc. Y por otro, tener en cuenta, no solo la dependencia a distintas sustancias, sino también las demás dependencias psicológicas: ludopatías, dependencias a nuevas tecnologías, etc.

### 2. Objeto

Horrelako egoera batean dauden Arrasateko bizilagunei, EAEko tratamendu zentro publiko eta kontzertatuetarako sarbidea erraztea.

Facilitar el acceso a la población de Arrasate que se encuentre en alguna de esta situación, a los centros de tratamiento públicos o concertados de la CAPV.

**3. Onuradunak**

Droga-mendekotasun arazoengatik, beste mendekotasun psikologikoengatik edota gazterik hasitako kontsumoen ondoriozko arrisku jarrerengatik, tratamendu programa batean dabiltzan Arrasateko bizilagunak.

Era berean, laguntzen onuradun izango da afektatuaren jarraipena egingo duen pertsona (senidea edo laguna).

Dena den, Gizarte Ongizateko batzordeak ahalmena du aztertu eta erabakitzeko aurkeztu daitezkeen kasu berezi guztiak.

**3. Personas beneficiarias**

Vecinos y vecinas de Arrasate que se encuentren realizando un programa de tratamiento por problemas de drogodependencias, adicciones psicológicas de otro tipo o conductas de riesgo fruto de consumos precoces.

Se beneficiará de las ayudas del mismo modo el acompañante (familiar o amigo/a) que realice el seguimiento del afectado.

No obstante la comisión informativa de Bienestar Social queda facultada para estudiar y dirimir todos aquellos casos especiales que pudieran presentarse.

**4. Laguntza motak**

Laguntzak aipatu zentroetara joateak eragindako garraio gastuak estaltzera bideratuko dira. Garraio gastuak kontsideratzen dira, garraio publikoan nahiz norberaren ibilgailuan Arrasatetik tratamendu zentroraino egindakoak. Laguntzak emate aldera, kontuan hartuko da bi pertsonak (afektatua eta laguntzailea) hileko eginiko bidaia kopurua, garraio publikoaren kostuari dagokionez.

**4. Tipos de ayuda**

Las ayudas se destinarán a cubrir los gastos de transporte derivados de la asistencia a alguno de los centros señalados. Se consideran gastos de transporte tanto los realizados en transporte público como en vehículo propio desde el municipio de Arrasate hasta el centro de tratamiento. Si bien, a efectos de concesión de las ayudas, se tendrán en cuenta el número de viajes mensuales por dos personas (persona afectada y su acompañante), en función del coste del transporte público.

**5. Baldintzak**

Eskatzaileak Arrasaten egon behar du erroldaturik, dirulaguntza eskabidea aurkezten duen unean bertan.

Dena den, Gizarte Ongizateko batzordeak ahalmena du aztertu eta erabakitzeko aurkeztu

**5. Requisitos**

La persona solicitante deberá estar empadronada en Arrasate en el momento de presentar la solicitud de ayuda económica.

No obstante la comisión informativa de Bienestar Social queda facultada para estudiar y dirimir todos

daitezkeen kasu berezi guztiak.

Dirulaguntzak eskatu ahal izango dira tratamendu programan hilabete bat egon ostean. Kontzesioak atzera eraginezko izaera izango du, betiere hilabete bateko epe minimoa, laguntzen deialdiaren urte barruan burutzen bada.

**6. Onuradunen obligazioak**

Tratamenduan dagoen pertsonaren egoeran izan daitezkeen aldaketak, araudi honetako laguntzekin lotura izan dezaketenak (adibidez, errolda edo diru-sarreren aldaketa), adierazi behar zaizkie eta behar bezala egiaztatu Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Sailekoei, gehienez ere 30 eguneko epean, hori gertatu denetik.

**7. Aurkeztu beharreko agiriak**

Araudi honetan arautzen diren dirulaguntzak jaso nahi dituzten pertsonek, batetik, eskaera bete eta aurkeztu behar dute udal Gizarte Zerbitzuetan, hartarako emango zaien inprimakian, eta, bestetik, horrekin batera dokumentazio hauxe erantsi behar dute:

a) Eskatzailearen Nortasun Agiriaren fotokopia.

b) Bizikidetza eta errolda ziurtagiria.

c) Tratamendu Zentroak egindako ziurtagiria, non-eta adieraziko den tratamenduan gutxienik hilabete batez aritu izana.

d) Eskatzailearen urteko diru-sarrerak jasotzen dituen dokumentazioa.

aquellos casos especiales que pudieran presentarse.

Se podrán solicitar ayudas económicas a partir de 1 mes de permanencia en el programa de tratamiento. La concesión tendrá carácter retroactivo a la fecha del inicio del tratamiento, siempre y cuando el plazo mínimo de un mes se produzca dentro del año de la convocatoria de las ayudas.

**6. Obligaciones de las personas beneficiarias**

Las modificaciones que puedan producirse en la situación de las persona en tratamiento y en las personas familiares que puedan tener relación con las ayudas objeto de la presente normativa (por ejemplo, modificación del empadronamiento o de los ingresos), deberán ser comunicadas y debidamente acreditadas a la unidad administrativa de Servicios Sociales del Ayuntamiento en el plazo máximo de 30 días desde que se hayan producido.

**7. Documentación a presentar**

Las personas que estén interesadas en percibir las ayudas económicas reguladas en la presente normativa deberán cumplimentar y presentar en los Servicios Sociales del Ayuntamiento una solicitud en el impreso que se les facilitará a tal efecto, adjuntando a la misma la siguiente documentación:

a) Fotocopia del Documento Nacional de Identidad de la persona solicitante.

b) Certificado de empadronamiento y convivencia

c) Justificante expedido por el centro de tratamiento, donde se notifique haber estado como mínimo 1 mes en tratamiento.

d) Documentación en la que se haga constar los ingresos económicos anuales del solicitante,.

e) Gizarte Ongizateko batzordeak beharrezko jo dezakeen beste edozein agiri.

e) Cualquier otra documentación que la comisión informativa de Bienestar Social pueda considerar necesaria.

Diru-laguntza hauen kasu zehatzean, eta oinarri orokorren salbuespen gisa, ez da bete beharreko baldintza izango Administrazioarekin zerga-obligazioak betetzea.

En el caso concreto de estas ayudas, y como excepción a las bases generales de la convocatoria, no se exigirá estar al corriente de en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias frente a la Administración.

**8. Aurkezteko epea**

Ez da finkatu eskabideak aurkezteko eperik, baina laguntza jasotzeko eskubidea sortuko da eskabideak aurkezten diren egunetik aurrera.

Edozelan ere, dirulaguntza izateko, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu aurreko hilabeteetan sortu zitezkeen eskubideak kontsideratuko dira, betiere eskabidea aurkeztu bada GAOn argitaratu eta 30 laneguneko epean.

**8. Plazo de presentación**

No se establece plazo de presentación de solicitudes, si bien el derecho a la percepción de la ayuda se generará a partir de la fecha de presentación de las mismas.

En todo caso, a efectos de subvención se considerarán los derechos que se hubieran podido generar durante los meses anteriores a la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, siempre y cuando la solicitud se haya presentado en el plazo de 30 días hábiles contado a partir de dicha publicación.

**9. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio unitatea**

Gizarte Zerbitzuetako administrazio unitateak izapidetuko ditu eskabideak.

**9. Unidad administrativa encargada de la tramitación**

Las solicitudes serán tramitadas por la unidad administrativa de Servicios Sociales.

**10. Eskabideak baloratzeko irizpideak**

Onuradunek eskubidea duten dirulaguntzak honela kalkulatuko dira:

Dirulaguntza zenbatekoa kalkulatzeko, honako datuak hartuko dira kontuan:

- LGS

- Eskatzailearen hileroko diru-sarrerak

**10. Criterios de valoración de las solicitudes**

El cálculo de las ayudas económicas a las que tienen derecho las personas beneficiarias se realizará aplicando el siguiente baremo económico:

Para calcular la ayuda económica se tomará como referencia los siguientes datos:

- SMI

- Ingresos mensuales del solicitante

- Ekonomikoki eskatzailearen menpeko diren kide kopurua.

Laguntzaren kalkulua, honako formularen arabera kalkulatuko da: Y=200 – 100X

X= hileroko irabaziak / oinarrizko irabaziak %100

Y= Dagokion laguntza ekonomikoaren ehunekoa

- Nº de personas económicamente dependientes del solicitante.

El cálculo de la ayuda se realizará en función de la siguiente fórmula: Y= 200 – 100X

X= ingresos mensuales / ingresos básicos 100%

Y= Porcentaje de ayuda económica que corresponde

| Ekonomikoki menpeko diren kideak/ Miembros económicamente dependientes | LGS/S.M.I. | IZ/I.C. | % 100 diru laguntza 100% ayuda económica |
|---|---|---|---|
| 1 | 645,30 | 1,3 | 838,89 |
| 2 | 645,30 | 1,2 | 1.548,72 |
| 3 | 645,30 | 1,1 | 2.129,49 |
| 4 | 645,30 | 1 | 2.581,20 |

## 11. Aurrekontua

Programa honen bidez deitutako dirulaguntzen zenbatekoa 8.000 €-koa da, eta finantzatuko da “1.0402.480.323.00.00– “Droga-mendekotasun arloko Dirulaguntzak” kontu sailaren kontura.

Laguntza jasotzeko eskubidedun eskabide guztiak betetzera iristen ez bada aurrekontu kopurua, handitu egingo da kopuru hori, udal aurrekontua betetzeko arauetan aurreikusten diren kredituak aldatzeko mekanismoen bidez.

## 11. Presupuesto

El importe de las ayudas convocadas a través del presente programa asciende a la cantidad de 8.000 €, y será financiado con cargo a la partida presupuestaria 1.0402.480.323.00.00- “Subvenciones del área de drogodependencias”.

Si la dotación presupuestaria no alcanzara a cubrir el total de solicitudes con derecho a ayuda, se procederá, a través de los mecanismos de modificación de créditos previstos en las bases de ejecución del Presupuesto Municipal, a su oportuna ampliación.

## 12. Laguntzak pilatzea

Araudi honetan datozen laguntzak bateragarriak izango dira beste edozein laguntza edo dirulaguntza lortzearekin, helburu horretarako beste edozein administrazio publikotik lortzen badira ere, baina kasu batean ere ezingo da gainditu joan-etorrien gastu guztien kostua.

Horri buruz ulertuko da kostu osoa gainditzen

## 12. Concurrencia de ayudas

Las ayudas previstas en la presente normativa serán compatibles con la obtención de cualquier tipo de subvención o ayuda que para el mismo fin puedan obtenerse de cualquier otra Administración Pública, sin que en ningún caso se pueda superar el coste total de los gastos de desplazamiento.

A este respecto se entenderá que se supera el

duela, jasotako laguntzek, oro har, garraio publikoaren zenbatekoari dagokiona gainditzen dutenean.

Emandako dirulaguntzak kostu osoa baino handiagoak izanez gero, itzuli egin beharko zaio Udalari kostutik gorako kopurua.

**13. Frogatzeko epea eta erak**

Laguntza ordaindu baino lehen, hilero tratamendu zentroak egindako asistentzia egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte onuradunek. Bertan zehaztu beharko da tratamendura joandako egunez gain, bakarrik ala laguntzailearekin egon den.

**14. Ordaintzeko erak eta epea**

Dirulaguntza emateko akordioa adierazten duen aldian laguntza onartu eta gero, ordainduko da, arau espezifiko hauetako 13. artikuluan aurreikusten diren frogagiriak aurkeztu ondoren, hilero (hilabete muga eguneratua); hileko ordainketa zenbatekoa honela aterako da: onartu den laguntza zati dirulaguntza ematen den aldia osatzen duen hilabete kopurua.

Erabakitako diru kopurua ordaintzeko eskatzailearen kontuan edo tratamendura lagunduko duen senide edota lagunaren kontuan sartuko da.

**15. Klausula gehigarria**

Arau espezifiko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan arau orokorretan ezarritakoa izango da aplikagarria.

Halaber, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzan eta 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta bat datozen gainontzeko lege arauetan ezarritakoari atxikiko zaio.

coste total cuando las ayudas recibidas, en su conjunto, excedan de la cantidad correspondiente al transporte público.

En el caso de que las subvenciones otorgadas superen el coste total, el exceso de la ayuda deberá ser reintegrado al Ayuntamiento.

**13. Plazo y forma de justificación**

Previo al abono de la ayuda, las personas beneficiarias deberán presentar los justificantes de asistencia expedidos por el centro de tratamiento, en el cual habrá que constar, además de los días que ha asistido al tratamiento, sí lo ha hecho con o sin acompañante.

**14. Forma y plazo de pago**

Aprobada la ayuda por el periodo que señale el acuerdo de concesión, el abono de misma se efectuará, previa presentación de la documentación justificativa prevista en el artículo 13 de las presentes bases específicas, con carácter mensual (mes vencido), de modo que el importe del abono mensual se obtendrá dividiendo la ayuda aprobada entre el numero de meses que comprenda el periodo para el que se conceda la misma.

El pago de la cantidad se ingresará en la cuenta de la persona solicitante o en la cuenta del familiar o amigo/a que le acompañe al tratamiento.

**15. Cláusula adicional**

En todo lo no recogido expresamente en las presentes bases específicas, se estará a lo dispuesto en las bases generales de la convocatoria.

Asimismo, regirán la Ordenanza Municipal de Subvenciones y la Ley 38/2003, General de Subvenciones y demás disposiciones legales concordantes.